"Orri zuriko zuhaitza"

Basoko lekurik ezkutuenean zuhaitz bat jaio zen behin. Leku hartan gutxi-gutxitan baino ez ziren oreinak, piztiak eta txoriak ibiltzen.

Zuhaitzak bazekien, landareek jakituria handia baitute, egunen batean papera izango zela, edo bestela egurretarako erabiliko zutela. Hortaz, papera izango zela jakinik, eta burlati samarra ere bazenez, hostoen ordez paperezko orri zuriak jantzi zituen udaberrian, eta haizetara zabaldu zituen harro-harro.

Orri zuriek soinu xarmangarria ateratzen zuten adarretan kulunkan, eta txoriak lasai-lasai pausatzen ziren haien ondoan.

LIVEWORKSHEETS

Uda heldu zenean, fruituak edukitzea pentsatu zuen zuhaitzak.

Baina, zer fruitu eman behar zuen paperezko orri zuriko zuhaitz batek? Jakina, letrak!

Horrela, mota guztietako letraz bete ziren orriak. Letrek inork deszifratu egin zituen mezuak osatzen zituzten, eta barre-algaraka ibiltzen ziren bat-bateko mezu haiek zirela eta!

Txoriek oso gogoko zituzten letren barreak.



Joan zen uda, eta udazkena iritsi zen basora. Paperezko orri zuriek, haize hotzak bultzatuta, hegan eta hegan egin zuten: batzuk oso urrun joan ziren; beste batzuk, ez horrenbeste. Lurrera erori, edo zuhaixketan kateatuta gelditu ziren.

LIVEWORKSHEETS

Haizea amaitu zenean, txoriak zuhaitzera itzuli ziren baina biluzik aurkitu zuten. Triste jarri ziren letren barre-algararik gabe, eta haien bila joan ziren. Aurkitu zituztenean, negar-malko izugarriak isuri zituzten haien gainean.

Orduan, sorginkeria moduko bat gertatu zen:txorien malkoek hegoak, hankak, mokoak eta lumak sortu zituzten letretan. Eta airera itzuli ziren.

Harrezkero hegan ibiltzen dira gauetan, eta, norbaitek haien solasak entzuten baditu, olerkari bihurtzen da. Ametsak eta istorioak ere asmatzen omen dituzte inoiz itsasoa ikusi ez duten haurrentzat.

Carles Cano, **El árbol de las hojas,** *Kalandraka* (moldatua)

LIVEWORKSHEETS

EA ULERTU DUZUN

1. Klikatu (markatu) gezurra dioten esaldiak eta berridatzi zuzenduta.

- [ ] Basoko lekurik ezkutuenean zuhaitz bat jaio zen.
- [ ] Zuhaitzak bazekien pirata izango zela.
- [ ] Orriek soinu gogaikarria ateratzen zuten.
- [ ] Mota guztietako letraz bete ziren orriak.
- [ ] Paperezko orri zuriak hegan joan ziren.
- [ ] Txoriak triste jarri ziren zuhaitza biluzik ikusita.

.....

.....

.....

.....

2. Osatu esaldiak testuko informazioa kontutan hartuz.

Zuhaitzak .....

.....

jantzi zituen hostoen ordez.

Zuhaitzaren fruituak

..... izan ziren.

orriak	letrak	paperezko

LIVEWORKSHEETS

LIVEWORKSHEETS